

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Kultura Kontseilua guztiz berritu da


Osoko bilkura berria parekidea da gizon eta emakumeen kopuruari dagokionez, eta pertsona gazteagoei tokia egin zaie

Viernes, 04 de diciembre de 2015

Kultura, Kirol eta Gazteriko kontseilari Ana Herrerak foru-agindu bat sinatu du ostiral honetan eta, haren bidez, Nafarroako Kultura Batzordeko osoko bilkura osatzen duten 20 kideak berritu dira; batzorde hori gai horretan Foru Gobernua aholkatzen duen aholku-batzordea da.

Osoko bilkura berria parekidea da gizon eta emakumeen kopuruan, eta 27 eta 64 urte arteko pertsonak daude bertan. Kultura arloko espezialistak dira: arkitektura, zinema, sorkuntza plastiko, dantza, etnografia, historia, literatura, musika edo antzerkian.

Zehazki, izendatutako pertsonak honako hauek dira. [Alvaro Ador Lerga](#) historialari eta ikertzailea; Zugarramurdiko Sorginen Museo eta Kobako zuzendari kudeatzaile [Ainhoa Aguirre Lasa](#); NUPeko musikari eta irakasle [Marcos Andres Viergue](#); Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioko Kantu katedradun [Carmen Arbizu Lopez](#); Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziadun eta zinema-banaketako espezialista [Marta Artica Zurano](#); dantzako ikertzaile [Bertha Bermudez Pascual](#); [Ioar Cabodevilla Antoñana](#) arkitektoa; Nafarroako Unibertsitateko Artxibo nagusiko zuzendari [Yolanda Cagigas Ocejó](#); konpositore eta Madrilgo Goi Mailako Musika Kontserbatorioan Konposizio eta Instrumentazioko katedradun [Teresa Catalan Sanchez](#); poeta eta Civicango euskararen irakurketa-klubeko koordinatzaile [Angel Erro Jimenez](#); eskultore eta grafika digitaleko aplikazioen espezialista [Xabier Idoate Iribarren](#); NUPeko Zuzenbidearen Historiako irakasle [Roldan Jimeno Aranguren](#); antzerkiko aktore eta "La llave maestra" konpainiako kudeatzaile [Patxi Larrea Salinas](#); [Efren Munarriz Clemos](#) arkitektoa; zinemako ekoizle [Puy Oriá Rubio](#); NUPeko Erdi Aroko Historiaren katedradun [Eloisa Ramirez Vaquero](#); [Koldo Sebastian del Cerro](#) sortzaile plastikoa; euskara-irakasle eta abesti nahiz musika tradizionalaren dibulgatzaile [Ana Telletxea Koxkolin](#); Atarrabiako Udaleko kultura teknikari [Jose Vicente Urabayen Azpilicueta](#); eta [Mikel Zuza Viniegra](#) idazle eta liburuzaina.



Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuko egoitzaren patio isabeldarra.

Kide diren pertsona horiez gain, osoko bilkuran izango dira ere: Herrera kontseilaria bera, lehendakari izanik; Vianako Printzea Erakunde-Kulturako zuzendari nagusi Fernando Perez; departamentu horretako idazkari tekniko nagusi Alfredo Huarte, eta azken horrek idazkari-lanak egingo ditu.

Nafarroako Kultura Kontseilua

Gogora ekarri behar da Nafarroako Kultura Kontseilua aholku-batzorde bat dela eta Foru Komunitateko Administrazioaren aholkularia dela gai horretan. Hark dituen eginkizunen artean, ondorengoak nabarmendu behar dira: azterketak eta txostenak egitea, kultur politika definitzen eta egikaritzen laguntzea, eta arlo horretan proposamenak nahiz ekimenak egitea. Gainera, Kulturako Vianako Printzea saria nori eman proposatzen du; sari horrek alor horretan pertsonak, taldeak eta erakundeak egindako lana aitortzen du.

Nafarroako Kultura Kontseilu berria abendu honetan zehar osatuta geratuko dela aurreikusten da. Haren erabateko azken berritzea 2013an izan zen, nahiz eta ondoren bi aldaketa partzial egin (2013an eta 2014an) bi kide ordezteko.

Galería de fotos



Álvaro Adot Lerga.



Ainhoa Aguirre Lasa.



Marcos Andrés Viergue.



Marta Artica Zurano.

Carmen Arbizu López.



Bertha Bermúdez Pascual.



Yolanda Cagigas Ocejo.



Teresa Catalán Sánchez.



Ioar Cabodevilla Antoñana.



Ángel Erro Jiménez.



Xabier Idoate Iribarren.




Roldán Jimeno Aranguren.



Patxi Larrea Salinas.



Puy Oria Rubio.



Efrén Munárriz Clemos.



Koldo Sebastián del Cerro.



Ana Telletxea Koxkolin.



Eloísa Ramírez Vaquero.



Mikel Zuza Viniegra.



José Vicente Urabayen Azpilicueta.